

Informazio orri honen bidez zuen interesekoak izan daitezkeen hainbat berri eman nahi dizkizuegu. Gogoratu nahi dizuegu, halaber, gai hauei edo beste edozeini buruzko informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, Federazioarekin harremanetan jar zaitezketela, horretarako eskaintzen ditugun bide hauei edozein erabilita: aurrez aurreko arreta, Federazioaren bulegoan, 9:30etik 17:30era, astelehenetik ostiralera; telefono bidezko arreta (tel. zk.: 943 32 72 08 / fax zk.: 943 27 49 77); edo posta elektronikoa, baikara@baikara.org helbidera idatzita.

1. IKASLEEN ESKUBIDEEI ETA BETEBEHARREI BURUZKO DEKRETU BERRIA

Abenduaren 2an argitara eman zuten, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko 201/2008 dekretua. Dekretu horrek 1994az gero indarrean egon den dekretuaren tokia hartuko du hemendik aurrera, eta hezkuntza komunitatearen barruan eztabaida zabala egin eta adostasun orokorra lortuta finkatu da. Dekretu berriaren xedea da bizikidetzaren eredu bat arautzea, ikasleek beren betebeharrak zein diren ikasi eta horiek bete ditzaten, “gizarte eta herritartasun” gaitasuna barneratuta, eskola curriculum berrian txertatutako oinarritzko gaitasuna eta eskubide osoko herritar gisa gizarteratzeko beharrezkoa dutena barneratuta. Honako hauek dira dekretuaren berrikuntza nagusiak:

- Goitik beherako aldaketa, izaerari dagokionez: prozedura administratibo soila izateari utziko dio, hezkuntza metodo izateko xedea du.
- Arinagoa da, eta bizikidetzaren kontrako jokabideak denbora tarte laburragoan zuzentzeko aukera ematen du.
- Aukerako bideak ematen ditu jokabideak zuzentzeko –adibidez, adostasuna, ordaintza...–, eta zuzeneko lotura du ikastetxeko Bizikidetzaren Planarekin.
- Eskumen handiagoak aitortzen dizkie ikastetxeetako zuzendaritzeari.
- Zero tolerantzia aldarrikatzen du, kideen arteko tratatu txarrei eta irakasleekiko erasoei dagokienez.

Dekretu berriak dioenez, nahitaezkoa da ikastetxeek sei hilabeteko epean beren Antolaketa eta Funtzionamendu Araudia (AFA) dekretu berriari egokitzea; horretarako egin beharrezko aldaketak egin beharko dira, Bizikidetzaren Plana bete dadin bermatzeko beharrezko direnak barne.

Aurretik esan izan dugunez, AFAn ekainerako nahitaez berrituta edukitzeko betebeherrak ikastetxeen antolaketa funtzionamendua hobetzeko lagungarri izan daitezkeen beste hainbat aldaketa proposatzeko aukera emango die IGEei.

Dekretu berriaren testua kontsultatu eta deskargatu nahi izanez gero, badago horretarako aukera, Federazioaren webgunean (www.baikara.org).

Dekretu berriaren aplikazioa errazteko, Hezkuntza Sailak gida bat argitaratu behar du. Gida honen edukia Federazioaren web orritik deskargatu dezakezue.

2. HIZKUNTZA EREDUEN ERREFORMA.

Azkenik, Eusko Legebiltzarrak ez du gauzatuko hizkuntza ereduaren erreforma legealdi honetan. Hezkuntza Sailak azaroaren 13an aurkeztu zuen azken proposamena eta Euskadiko Eskola Kontseiluak abenduaren 16an egin zuen horren gaineko eztabaida; hainbat aldaketa proposatu zituen, eztabaida horren emaitza gisa. Ondoren, Eusko Legebiltzarrak proposamenari onespena eman behar zion. Baina urtarrilaren 6an EHAA-n argitaratu zenez, Lehendakariak Eusko Legebiltzarra desegin eta martxoaren 1erako hauteskundeak deitu ditu. Erabaki horren ondorioz, ezingo dira ereduaren erreforma gauzatzeko urratsak bete, eta hauteskundeak egin eta gobernu berria eratu arte bertan behera utzi beharko da gai hau; gobernu berriak erabaki beharko du proposamenaren gaineko irapideak orain gelditu den tokitik abiatu edo, bestela, hutsetik berriro hasi, beste proposamen bat oinarri hartuta.

3. ESKOLA MAPA

Abenduaren 15ean bilera egin genuen Hezkuntza Sailarekin, eskola mapa berria dela eta. Bilera horretan esan zigitenez, aholkularitza juridikoaren txostena falta zen dekretu proposamena zehazteko, eta txosten hori eskura eduki ezean, ez zegoen proposamenarekin aurrera egiterik. Teorian, txosten juridikoa jasotakoan, dekretuari onespena eman beharko dio Gobernu Kontseiluak eta EHAAAn argitaratu. Zer garaitan gauden eta martxoaren 1ean hauteskundeak izango direla kontuan hartuta, zalantza handiak ditugu datozen hilabeteetan gai honi buruzko aurrerapenik egingo ote den. Edonola ere, Hezkuntza Sailak urtarrilean edo otsailean beste bilera bat antolatzeke hitza eman zuen, herrialde mailakoa, herrialde bakoitzerako proposamen berriaren aurrerapena egiteko.

4. HAUR , LEHEN eta DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO MATRIKULAZIO KANPAINA

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2009/10 ikasturterako matrikulazio kanpaina **otsailaren 2an hasi eta 13an amaituko da.**

Aurreko urteetan bezala, Federazioaren iritzian garrantzi handia du Ikastetxeek Gipuzkoako hainbat herritan sortu diren komunikabide lokaletan beren propaganda egiteak. Hori dela eta, matrikulazio kanpainarako iaz proposaturiko laguntza berak eskainiko ditugu aurten ere: 60 euroko ikastetxeko. Honako hauek dira laguntza hauek jasotzeko baldintza bakarrak:

- **BAIKARAREN** logoa txertatu publizitatean.
- Federaziora igorri komunikabide bakoitzean plazaratutako publizitatearen kopia.

Era berean, jakin dugu zenbait herri handitan, Ikastetxe publiko bat baino gehiago duten herrietan alegia, Ikastetxeek elkarrekin txerta dezaketela publizitatea komunikabideetan. Kasu hauetan ere publizitatean BAIKARAREN logoa ezartzea proposatzen dizuegu, eta horren truke 30 euroko laguntza emango zaio Ikastetxe federatu bakoitzari. Ikastetxe bakoitzak, dena dela, ezingo du laguntza behin baino eskuratu, eta, horrela, publizitatea beste Ikastetxe batzuekin batera egitea erabakitzen dutenez, ezingo dute lehen aipatu den bana-banako 60 euroko laguntza hori jaso.

5. JANGELA BATZORDEAREN SORRERA

EHIGE Konfederazioak proposamena egin digu (BAIKARA konfederazio horretako kide denez) Euskadi osoko Jangela Batzordea eratzeko. Batzorde horren xedea eskola jangelen gaineko eztabaida egitea izango da, baita Hezkuntza Administrazioari hainbat gairi buruzko proposamenak egitea ere, honako gai hauei buruzkoak, besteak beste: gaur egungo lege esparrua berrikustea; janariaren kalitatea eta kantitatea; antolaketa; jangela, hezkuntza esparru gisa hartuta..

Batzorde horretan nahi duten IGE orok parte hartu ahal izango dute. Horregatik eskatzen dizuegu batzorde horretan aritzeko interesa duzuen IGEei lehenbailehen gurekin harremanetan jar zaitezte, 943 32 72 08 telefono zenbakira deituta edo honako helbide honetara e-maila idatzita: baikara@baikara.org.

6. BIZKARREKO ARAZOEI AURREA HARTZEARI BURUZKO HITZALDIA

Michel MARMIER sendagilea, bizkarrezurreko gorabeheretan aditua dena, BAIKARAREkin harremanetan jarri da, ikastetxeetan gai horri buruzko hitzaldiak emateko prest dagoela jakinarazteko. Hurrek eta gazteek izan litzaketen bizkarreko arazoei aurrea hartzen lagunzeko informazioa emango du hitzaldi horietan, eta prebentzio ariketak, gorputz jarrera desegokiak, eskolosoia, motxila eta beste hainbat gai izango ditu hizpide. Hitzaldiak dohainik izango dira, eta martxoa izango da horiek egiteko garaia. Hiru edo lau emateko prest dago medikua, eta, beraz, gai honi buruzko hitzaldia antolatzeke interesa duzuen IGEei eskatzen dizuegu lehenbailehen jartzeko harremanetan BAIKARAREkin. Hitzaldi kopuru mugatua izango denez, eskaria jasotzen dugun ordenari jarraituko diogu. Edonola ere, IGE gehiagok interesa edukiz gero, aurrerago ere izan liteke hitzaldi gehiago antolatzeke aukera.

7. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERA

BAIKARAREN Zuzendaritza Batzordeak bilera egingo du urtarrilaren 29an, osteguna, 18.30ean, Urretxuko Iparragirre BHIIn.

BAIKARA FEDERAZIOA

Baso – Txiki, 36 – atzealde . 20015 Donostia

E-mail: baikara@baikara.org

Tel: 943 327208 Fax: 943 274 977

Web orria: www.baikara.org